

# ZER

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

242n. zenbakia  
uztaila-dagonilla 1999



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAIA  
LAGUNTZAILLE



**LEJARZA'TAR IMANOL  
(GOIAN BEGO)**

- EUSKEREAREN ZABALTZAILLEA
- IRAKASLE IRAUNKORRA
- ERRI-ZALE BIZI-BIZIA

## BAKIO'KO ABESBATZA

Bakioko Abesbatzaren batzordeko dan Josu AGIRRE-gaz izan gara berbetan. Bakioko Abesbatzak urteotan egin-dako ibilbidea, labur labur, ekarri gura izan deutsuegu emengo onetan.

### **ZER: Noz jaio zan abesbatza?**

JA: 1984ko udabarrian, orain dala amabost urte. Jendaurreko leenengo ekitaldia, baina, urte aretako maiatzaren 15ean izan zan.

Gaizka San Pedro bermeotarra (G.B.) izan genduan leenengo zuzendaria eta bultzatzaile nagusia. Berak maisukiro asmatu eban gure agotsak landu eta bateratuten. Zeregin orretan jardun eban ba, ordainetan inoz ezer eskatu barik, beargin zeatz jator nekagatxa, osasunez makaldu zan arte.

Gaizka il zanetik ona Begoña Abio dogu zuzendari.

### **ZER: Esaiskuzu Josu, labur, zer dan gaur egun abesbatza**

JA: Gaur egun 38 bat agots alkartuten gara, gizonezko eta andrazko, eta Bizkaiko Abesbatzen Alkarteko kideak gara. Ori dala eta, 1995ean Bakion bertan eratu zan XII. Bizkaiko Egun Korala.

Entsaioak bariku eta zapatuetan egiten doguz. Astean beste baten be egin gura geunke, baina, oraingoan, bearra, ikasketak, eta... dirala-eta, ezinezkoa dogu.

Abesbatzak ia urtero urtero artuten dau esku Begoñako Abesbatzen Astean, baita Bizkaiko Abesbatzen Alkartean eratutako Udabarriko Kontzertuetan be.

Beste aldetik, Bakioko Musika Astea eratuten lagunduten deutsegu Bakioko Udalari eta Foru Aldundiko Kultura Sailekoei. Bakioko Musika Asteak –esan daigun, bide batez– kalitate eta entzute andiko nazioarteko jaialdia izatea lortu dau.

### **ZER: Ederto. Aitatu eiskuzuz, orain, zuok egindakoen artean diranik eta jakingarrienak.**

JA: Taldeak lortutako mailarik gorena 1997ko Bakioko Musika Astearen X. urteurrenerako (1986-1996) Anton Larrauriren "Bestelako Gudariak" lanaren estreinaldia egin genduan izan zan, Mungiako Abesbatza eta Aize eta Perkusino Orkestra bat lagun genduzala.

Estreinaldi arek prentsan eta telebistan be lekuri izan eban. Azkenean, emonaldi bakarrik egin genduan, CDa zuzenean grabatuz. Gatxa izango dan arren be, olakoak geiagotan egiteko itxaropenik ez dogu galdu.

### **ZER: Eta egitekoen ganean zer esan zeinkigu, Josu?**

JA: Aurton be gogor gabiliz bear egiten eta erriari ezusteko polita eskainiko deutsogulakoan gagoz. Ezustekoa izatea gura dogun arren, zeozertxu aurreratuko dogu: oraingoan be Mungiako Abesbatza lagun izango dogu, eta orkestra, barriz, soinu andiena izango da.

### **ZER: Eta zer ekarriko deutsue etorkizunak?**

JA: Ezin dogu, azkenik, aitatu barik itzi abesbatz txikiari emon gura deutsogun bultzadea. Umeen ilusinoari bizi-rik eusteko jantzi barriak erosi gura deutseguz, baita ekitaldiak eratu be. Zalantza txintik be ez dogu: gure arrobia abesbatz txikia da. Etorkizuna, ba, eurla da.

### **ZER: Eskerrik asko, Josu.**

ZER

## EUSKERAZALEAK ALKARTEA

### OARRA

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k batzar bereizi bat egingo dau 1999'ko irailaren 9'an, lehenengo deia arratsaldeko 7:30'etan eta bigarren deia 8'etan, Kolon de Larreategi 14, 2.a, eskoian dan bere gizarte-etxean.

Batzar onetako gai bakarra gure Araudia eguneratzea edo zeozetan aldatzea izango da eta oraingoan 9n. araua aldatzea eskatzen da.

Bazkide guztiai dei egiten jake batzar bereizi onetarako.

ZUZENDARITZA BATZORDEAK

## LEJARZA'TAR IMANOL (G.B.)

Berrogei urte baiño geiagotan EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren ikasturtean irakasle izan dogun Lejarza'tar Imanol joan jaku. Izan beite idaz-lan au bere ome-nez, berari esker onez eta bere goratarrez.

\*\*\*

1999'ko ekaiñaren 8'an il zan Deustu'n, 79 urte eba-zala. Gure samintasuna agertzen dautsegu Miren Bego-ñe bere emazteari eta senide gutziai.

\*\*\*

Urrengo egunean egin zan illeta-eleizkizuna Deus-tu'ko Pelizisimo Deunaren parrokian, dana euskera utsean berak agertu eban guraria betetuz.

Jentetza aundia batu zan pasiotarren eleiza aretan. Ba-dira gure artean euskal-zaleak ugari!

\*\*\*

Berrogei urte euskera irakasten eta Bilbao uri aundia-ren barruan! Ba-da zerbait!

Gure ikasturteak, aundikeri barik baiña zintzo egin dau bere lana ainbeste urtetan. Lenengo urteetan gauza gatxa ta arriskugarria zan euskerea irakastea, gure izkuntzaren arerioak indartsu egozalako eta azkenengo urteetan be gatx biurtu jaku lan au, irakaskintza onetan norgeiagooa deritxoan gaisoa sartu jakulako, baiña EUS-KERAZALEAK ALKARTEA'k jarraitu egin dau eta jarraituko be bai, Imanol'en antzeko laguntzailleak gure artean diran artean.

Agur Imanol! Eskerrik asko!

EUSKERAZALEAK

### ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (2.500 pezeta) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 2.500 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!



**Imanol de Lejarza  
de las Herrerias jauna**  
(Goian bego)

Deustun il zan atzo, 1999ko ekainaren 8an, 79 urte ebazala, Eleizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkaziñoa artu ondoren

Bere emazte, Miren Begoñe de Zabala; alaba, Begotxu, Izaskun eta Amagola; suiñ, Toño Olkoz, Juan Carlos Salutregi eta Alberto Perez illoba, Eneko, Aritz, Lartaun, Ekaitz, Eneritz eta Solartze; koiñatu-koiñata Karmele eta Arantza de Zabala, Jose Antonio Sanchez eta Raimundi Azkoeta (Lejarzaren alarguna); loba, lengusu eta beste sendiak.

Bere arimaren aide OTOITZ egin eta GAUR, eguaztena, ilak 9 arratsaldeko ZAZPIRETAN, BILBÓko Pelitsisimo Deunaren parrokia (Pelitsisimo enparantza, z/b) izango diran illeta-eliizkizun eta gorpuaureang mezara joan zaitezela eskatuten deutsue. Aídaurrez, milia esker.

OARRA: Olata meza dastoren DOMEKAN, ilak 13, goizeko AMAR TERDIETAN parroki berean oepatuko da.

(Bibaina, S. A. I. Z. Alda. Rekalde, 12. Telf. 94 424 10 65. Funeuskadi Taldea)

# KILI-KILIKO LAGUNOK, AGUR!

Aurtongo arpidetza dirurik ez deuskuzuela artuko adizera emon deuskuzue, ale gitxi kaleratuko dozue zalako aurki.

Aldizkaria bere jaiotzatik jaso izan dot etxean, urtean-urtean arpidetza zintzoro ordaindu dodala. Aspaldion, jakitera emon dozuenez, arazo eta estura ekonomikoetan sartuta dago KILI-KILI. Ori ez eze, Euskalerriaren arerioek, kanpoko zein barrukoek, gogor be gogor ekin dabe KILI-KILIren aurka.

Bada, nik ez dot gura aurtongo arpidetzarik ez deistazuen kobratu. Aal dodan artean, ordaindu egin gura deustuet. Bardin deust, ale gitxi zein ala asko atarako dozuen. KILI-KILIren egoera estua ondo be ondo neureganatu dot eta neure begi zorrotzak, asarre biziaz, nik ordaindutako zergak administratu dabezanengana bideratuko dodaz, auteskundeetan, esaterako.

Ogeitazak urte emon dodaz KILI-KILIREN alboan eta esturaldietan bean egon gura neuke. Besteko bagarik,

1999ko jorrraillean

## BERMEO ETA BAKIO BIZKAIBUSEK BATUTA

BIZKAIBUSEK Bakio eta Bermeo alkar lotuteko zerbitzua eratu dau aurtongo martitik aurrerantza. Zerbitzu onek erri baktotetik lau urtekera eskainiko deuskuz. Au da:

Leenengo zerbitzuak Bermeotik goizeko 7etan urtengo dau Bakiorantza. Ganerakoek, barriz, goizeko 10.30etan eta arrastiko 14.30etan eta 18.30etan.

Bakiotik Bermeorantza, baina, orduotan urtengo dau autobusak: 7.30etan, 11.30etan, 15.30etan eta 19.30etan.

Asteburuetan, oraingoz zerbitzurik egon ez arren, udan eukiko ei dogu, goizeko 7etako eta 7.30etako zerbitzuak izan ezean.

Txantelak 200 pesetan astegunetan eta 210 pesetan asteburuko egunetan erosiko dira. Ostera, Kredibus dalakoa daukenentzako txantelak 150 pta. balioko dau.

## BASERRIAREN MUSEOA

Gizaldi eta urte askotako erriko baserritarren ekanduak eta tradizioa etorkizunerako batu eta erakusteko dalako BASERRIAREN MUSEOA egitekotan dabil Udala.

Orretarako, azterketa teknikoa aginduko dau Udalak, orrelango museoa indarrean iminteko bearrezkoak diran aalmenak eta baldintzak Bakiok beteten dauazan ala ez jakiteko.

Asikera baten, baserriak arkitekturearen aldetik aztertuko dira, museoarene etxea aurkituteko asmotan edo.

Gero, bertako jaubeek proiektuagaz bat etorri ezkeron, museoa bertan kokatzeko.

Museoak, jakina, eskura egon bearko leuke, bertara era errezean joan aal izateko.

## BASERRIAK, BAKOTXA BERE IZENAGAZ

Bakioko 189 baserriek izena, bakotxak berarena, agirian eukiko dabe aurrerantzean.

Baserriaren izena ez eze, aren ganeko bestelango zeaztasunak be agertuko dauzan euskeraz idatzitako idazkun bana, etxeko ormeari dautsola, iminiko jake.

Orrez ganera, bidarteetan zein jagoken bideetan be noranzko taketak iminiko dira, argibide eran.

Udalaren ekimen ori ondo baino obeto artu dabe erriko giro euskalzaleek. Orretaz guztiorretaz erriko izkuntza eta istoria altxorraren zati garrantzitsua birreskuratu eta jagon gura dabe-eta.

## BAKIOKO 7. ARGAZKI LEIAKETE

Aurton be, zazpigarren urtez, Argazki Leiaketea eratu deuskue errian Bakioko Kultur Etxeak eta Turismo Bulegoak.

Argazkiak aurkezteko epea irailaren 6ra arte zabalik egongo da eta Turismo Bulegoan itzi bearko dira.

Leiaketan esku artuteko bete bearrezko baldintzak, onezkeroan, jakitera emonda dagoz. Adin talde bitan bananduta egonda be, edozeinek artu leike esku. Gaia "Bakioko jai eta ospakizunak" izango da.

Argazkilari baktotxak bost argazki aurkeztu leikez. Adin talde baktotxeko saritu bi izango, gero! Argibide geiagorako, jo eizu Turismo Bulegora eta bertan leiaketan eskuartutako baldintzen esku-orria eskatu.

Zori ona izan daizula!

## BAKIOKO EUSKAREA INTERNETen

Iñaki Gaminderen eskutik orain badaukagu eria Bakioko Euskerea Interneten bidez ikertu eta entzuteko.

Daborduko, AHOWEB gunean 300 megako bear mardul ori, berak eta lagun batzuk iminita, egon badago.

Bakioko agozko bizkaierearen "corpus" zabala, atan be. Laster argitaratuko da CD-ROM formatoan be.

Iñakiren esanetan, "euskera barririk ikasi ez daben euskaldunek egiten daben euskera pre-teknologiko ori barik, nekez eukiko dogu etorkizunean euskera teknologikorik. Agozko benetako euskerea entzuten jakin bearko dogu leenengo ta bein. Betiko euskaldunei entzun bear deutsegu, euskeraz ondo egiten ikasi daigun".

Amen dozuz, bada, goian aitatuken Interneteko zuzenbideak, bertan ibilteko asmorik bazendu, ara jotea baino ez zeunke:

Ahoweb  
[http://bips.bi.ehu.es/ahoweb/eu\\_index.htm](http://bips.bi.ehu.es/ahoweb/eu_index.htm)

Bakioko euskerea  
<http://bips.bi.ehu.es/bakio>

### "BAKIOKO EUSKAREA" LIBURUA

Azkenean, Iñaki Gaminde izkuntzalari eta irakasleak Bakioko euskerearen ganean egindako liburua aurtongo udarako salgai egongo da. Argitalpena Bakioko Udala, Labayru Ikastegia eta BBKren arteko alkarlanari esker egingo da. A erosteko salneurria: 1.500 pta.

### BAKIOKO EUSKEREAREN AZENTUA

Bakioko euskerearen azentua aztertu dauan ikerketa bearra egin eta argitaratu dau Iñaki Gamindek, FONTES LINGVAE VASCONUM aldizkariaren 1999ko urtarrilapirila sasoiari jagokon 80. zenbakian argitaratu be.

Aitatuako aldizkaria euskerearen ganeko azterlanak kaleratuteko leio zabala da eta nazionarteko izkuntzalarien artean izen aundiko argitalpena dogu. Nafarroako Gobernuaren babesean argitaratu eta munduan zear zabalduten dabe.

Oraingo onetan, Bakioko euskerearen azentuerearen ezaugarriak nagusienak aurkeztu deuskuz Iñakik. Bakioko euskerea iparraldeko bizkaierearen barruan doinu-azentu sistemak egiten diran eremuan kokatuta dago, au da, Getxo-Gernika izendatu izan dan aldakian.

Erriko berbakeran geiago sakondu gura dabenentzako beartxu onen ale pare bat Kultur Etxeko liburutegian daukazue eskueran.

### ZER DERITXOZU

*"Zein da zuretzat ariketarik onena umore ona izateko?"*

*Pilar Garcés de Los Fayos*

Edozein kirol praktikatzera oso ondo dago. Ariketaren bidez endorfina askatzen dogu eta orrelan psikiko eta fisikoki obeto sentitzen gara.

*Eztizen Angulo*

Lagunakaz futboleant jokatzea gustatzen jat eta oso ondo pasatzen dot.

*Iñaki Rabanal*

Ni beti nago umore onez. Baina onena zera da, zapatuetan lagunakaz futboleant jokatzen dodanean.

*Gorka Odriozola*

Zinemara joatea eta pelikula barregarri bat ikustea gustatzen jat. Baina, umore ona eukiteko nik gauza asko egiten dodaz, futboleant jokatuz, mendira joan... Ganera, nire kua-drilakoakaz afaria egite dot astero.

*Bego Iturain*

Kaletik noanean, besteen alkarrizketak entzuten dodaz. Orrelan erriko "kotilleo" guztiez enteretan naz. Badodaz lagunak, esaterako, Koldo Erauzkin, txisteak kontatuz eguna alaitzen deuskuenak.

*Nekane Ugalde*

Barre asko egin. Gauza askoren bidez euki aal dot umore ona, esaterako, lagunakaz parrandan banoa.

Haitz Uriarte  
Ziortza Garai  
Larraitz Uriarte  
Anartz Ormaza

### HERRIKO TALDEEN ALBISTEAK

#### *Bakioko Surf Taldea*

Itsas Mugarte Sailak areatzako ondarra ateratzeko egitasmoa dala eta, Bakioko Surf Taldeak ainbat kexa zabaldu dauz jendaurrean ipinitako oar baten bitartez. Euren esanetan, proiektu onek ingurugiroari kalte egiteaz ganera, ez da ulergarria zelan bideratu daiteken orrelako egitasmo bat, Gaztelugatxeko ingurune guztia biotopo izendatu ostean.

#### *Futbol Taldea*

Igaz beeragoko mailara jaitzi ostean, une onetan futbol taldea egoera erosoan dagoala esan daiteke. Berrogeita bi puntu daukaz, sailkapenaren bosgarren postuan dago eta barri au eginkeran jokatutako azken partidua bardindu eban Basauriko taldearen kontra.

#### *Gauka*

Urtean-urtean egiten daben lez, aurton be Gauka taldeak antolatu dauz San Jose egunean eta ostean egiten diran idi-probak. Jende asko bertaratu da probak ikusten eta antolatzaileek ontzat emon dabe Bakioko Udalak gonbidapenen bitartez jendea probetara parajetzeko egindako aalegina.

ZIDURI



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE

# EUSKALERRIA: II EDESTI GIOIA

## Erromatarren Panteioa. Erljio-jarrera Arri-zaar aroko (Paleolitico)

Gizona eiztaria zan eta eizera joan aurretik aztikeriak, majia, egiten zuen leize-zuloetan animalien irudi aurreetan. Irudia menperatu ezkeroz, animalia ere menperatuta zegoen indar berezi baten bidez. Indar ori sortzen zuen aztiak kiñuz eta itzez. Arrak il eta emeak gorde eta ugartu zan eiztariaren asmoa. Trois Freres Pirenetako koban dago orrelako azti bat, animalia itxuran. Orixe izanen litza-ke euskaldunen ikurrik zaarrena.

Arri-berrikoak (Neolitico), berriz, aztikeriz ez zuen lortzen belarra azitzerik. Eguzkia eta euria bear ziran. Orduan, begiak gora jaso eta Eguzkia gurtzen asi zan eta Eguzkiarekin batera, beste Izadiko indar guztiak... Orrela sortu zan lauburua eta antzeko ikurruak, eguzkiaren irudi ziralako.

## Erromatarrek

Indar oieri, giza-irudia ematen die, bakoitzari berea. Orrela sortzen dira Jupiter, Mercurio, Marte, Silvano, Diana, Mitra (Ekialdetik etorria) eta beste milla irudi. Pirenee mendietan utzi dizkigute arlosa sail bat euren izenekin.

## Euskaldunek

Izan ziran arlosa eta aldara oien egilleak. Erromatarren jainkoak or daude (Jupiter, Marte, Mater Magna, Diana, Silvano, Mitra...) eta oiekin batera, euskaldun jainko txikiak beste sail bat: (Beigorritxo, Aritxo, Aker-Beltza, Astoilluno, Basurde... eta beste zenbait animalien erditze eta narotsaunari buruzkoak).

Laister agertzen da Erroma'tik, baña erromatarra ez dan beste irudi, edo ikur bat: Kristoren Anagrama: X eta R alkarri gurutzaturik, aldamenetan A eta O dituela.

## Erromako Panteioa

Erromatarrek, erlijio zaletasun aundiko jendea, Inperio osoaren jainko txiki guztiei eliza bat jaso zioten, Panzeon grekar izenakin. Pan-Zeon, Jainko Guztiak esan nai du. Guztientzako zegoen tokia, baña Kristautasunarentzako ez. Alderantziz: alegiñak egin zituzten irureun urtez, mundutik kentzeko. Constantino enperadorea kristau egin da gero, askatasuna eman zion artean: 313'garren aurtea zan. "Martirien odola, kristauen azia" idazle zaarrak esan zue-  
nez.

## Elizmendi'ko ermita

Araba'ko Arana ballaran ba dago ermitatxo bat: jaso zutenean jainko txikien 8 arlosa erabilli zituzten beste arri askoren artean. Eta Naparroako Lana ballaran dagoen San Sebastián ermita jasotzeko, beste amairu. (Aztarnak: 94-116).

## Erroma eta euskal kultura

Erri euskaldunei kanpotarrek ipiñi zizkioten beuren ize-nak. Dirudienez, lenengo izena "Baskunes" izan zan, euro-parrek ipiñia. Gerora erromatarrek geure erria zatitu zuten izen auekin: "Vascones" (Naparroa eta Ebro'ko ballara Pirenee mendietan zear); "Varduli", (Naparro-mugatik "Deva" ibaira); "Caristii", ("Deva"tik "Nervión" ibaira); "Autrigonii" ("Nervión" ibaitik Kantabria aldera eta egoalderutz, Burgos, Bureba eta Campoo lurretaraíño)... "Aquitani", (Pireetik ifar-aldera Garona ibaiak egiten duen kakobarruan, Bordel'eraíño).

Euskaldunen zatiketa Erroma'k egiten du "Tarraconense Provincia" aren muga Pirenee mendietako gallurretan zear ipintzen duanean: orduan gelditzen dira ifar-aldera Aquitani eta ego-aldera beste euskaldun guztiak.

Vascones latin itzak balio du erderaz plurala esateko, askorentzako danean; baña, batentzako danean, ez da Vascon, Vasco baizik. Itz ori irugarren deklinabidekoa da latifñez. Sermo Semonis bezela; pluralean Semones da baña singul arrear Sermo eta ez sermon.

Vasco izenetik sortzen dira beste itz auek: Wasko, Uasko, Usko, Eusko. Eurok beuren buruari zer izen esaten ote ziotzen?

Kantabria mendartearen ego-eldera, Errioxa'n, zeltak gelditu ziran baztertuta Iberoekin burrukan. Berones izenekin.

## Erromatarren Kulturaren zarrara gure artean

Gure kultura artzai neolitikoena zan eta jo-aldi gogorra eman zion Midetarraneo itxaso ingurutik (Europa, Afrika, Asia'tik) zetorkion kultura arrek. Zazpi metro zabaleroko bide zabal aiek, euren zubi ederrekin, miragarriak ziran gure gurti bideen aldean. Gure borda eta txabolak, urradar eta buztiñakin sendotuak, zer ziran aiek egiten zituzten etxe eta erriekin konparatzeko? Ez ziran falta bañuetxeak, merkataritzako plazak (Foro), antzerki lanentzako egoitza bereziak (Anfiteatro) eta abar.

Baserri-etxeak ere, izugarritzakoak ziran; erromatar abe-ratsak jasotzen zituzten euren diruei etekin ederrak atera-

tzeko... Liedena'n (Naparroa) agertu da oietako etxe edererra. Erri baten itxura duana: nagusientzako gelak, eta langille mota guztientzakoak ere bai...

Erromak ez dituz bere kulturaren arrasto asko utzi Bizkaian eta Gipuzkoa'n: alaz ere artzai euskaldunek euren ardi-bidetik ebiltzen etenik gabe batetik bestera eta orrela jaso zituzten kultura berri arren xeetasun guztiak. Gu ez gera izan bakarti basatiak: gure ingurura agertutako kultura guziak jaso dituguz; Erromatarrenak ere bai. Eta ez gutxi.

## Funes'ko (Naparroa) ardotegia

1959'an 700 metro kuadrado ardotegi bat aurkitu zuten Funes errian: lau gela zeuden curen ontzi eta tolareekin; beste lau aundiagoak matza zanpatzeko eta abar. Lurgaiña zementozkoa. Gauza geiagoren artean, bi urrezko diru azaldu ziran. Domiciano'rena bat 76'garren urtekoa eta Adriano'rena bestea 119-120 urte garaikoa. Diru auek erakusten digute zer garaian ardotegia martxan zegoen. Jorge Navascues idazleak esaten digu erromatarren etxe guztietan zeudela tolareak, bai ardotarako eta bai oliotarako; Baña, Funes'en azaldu dana nekazaritzarako benetako lanategia dala.

Pablo de Zabalo, en su obra "Arquitectura Popular Vasca" (Santiago de Chile: 15-VI-1943) 13-17 orrialdetan euskal etxearen edestia osatzen digu: lenengo zurezkoa adarrekin estalia; gero arriakin egiñak. Ortik sortzen dira ainbat etxeen izenak: Arretxe (arrizko etxea), Ormaetxe (arrizko ormak). Tellaetxe (tellakiko tellatua=tellak jabetza agertzen digu)... Baserrietan "azpiko solairuan gela bat dago lanabesak gordetzeko eta tolarea sagardoa eta txakoliña egiteko". Erromatarren baserri aundien antzera joka dute bai arria erabiltzean bai etxeari tellak ipintzean. Izenak ere antzekoak: Tella=tégula; tellatu= tegulatum; tolare=torcular, beti ere itzen luzeroa murriztuz. Kupela euskeraz aundia da; baña, cupella latíñez cuba txikia: emen alderantziz jokatu zuten euskaldunek, cupella txikia kupela aundian biurtu dute...

Etxegintzan aldaketa aundiak ekarri dituzte erromatarrek eta lanbide geiego: baita arrobiak lantzen ere marmolak ateratzeko... bideak egitean eta zubiak jasotzean; errementarietan eta arostegetan zenbat gauza berri; berdin zeramikan, mosaikoetan eta margolaritzan... Laiaren ordezkoldea... eta abar eta abar.

Kultura mota guztiak curen izen berriekin onartu zituzten: etxegintzan Gazteluak dauzkagu (castellun=castillo); Dorre edo Torre (Turris = torre); Gela (cella = celda)... Jantzietan, berriz, Praka (braka=pantalón); Sakela (sacellum = bolsillo); Matasa (matasa = oவில்); Goru (collus = rueca); Titare (digitale=dedal) eta geiago. Liñu-liñuazi (linum = lino); Lixuba (lixibium = lejía)... Sukaidean, Sartagi-sartaña (sartago = sartén); Katillu (catillum = platillo); Galdara (caldaria = caldera); Lapiko (lapis = puchero); Mairidire (mantille = mantel) eta abar. Janariak, Kipula (cepulla = cebolla); Porru (porrum = puerro); Piperra (piper = pimienta); Baba (faba = haba); Babarruna (haba romana); Piku (ficum =

higo); Gaztaña (castaña = castaña); olio (oleum = oleo); Mertxika (persica = melocotón); Sekale (secale = centeno); Marrubi (marrubium = fresa silvestre); eta askoz geiago.

Gauzak artzen dituzte dakartzen izenekin eta curen berba-altxorra aberasten dute. Beuren itzak, ordea, ondo gorde, ani-arotik onera: lanabesak arrizkoak zirenean, arri edo aitz dute curen izenetan: aizkora, aiztoa, atxurra, zulakaitza eta abar. Artzai euskalduna ao-zabalik zegoen erromatarren kulturaren aurrean...

## Erroma eta illetak

Asieran ildakoak eortzen ziran bizi ziran kobeetan. Neolitiko aldean, berriz, Prikuarrietan eta leize berezietan... Geroago etxeetan eta etxeinguruko baratzetan.

## Erromatarren berriak

1) Sukaldeko suak ematen dio babesari etxeari eta sukaldeko etxe eliza da. 2) Eleiz orretako apaiz bakarra etxe eliza jauna da. 3) Etxeko andre berria zanean, sukaldara eramaten zuten illeta berrietan sartun zedin. 4) Tellatupean zuten egoitza biziak eta illak: auek janarietan parte artzen zuten eta ofrendak artu ere bai. 5) Otsailen guraso eta seme-alabek eskeintza bereziak egin bear zituzten ildakoen alde. 6) Elizkizunik garrantzi aundienekoa Caena Novendialis da: apari berezia ildakoen alde.

Bonifacio de Echegaray ("Algunos ritos funerarios en el País Vasco". Eusko Ikaskuntza: Sociedad de Estudios Vascos. San Sebastián, 1928) idazle ospetsuak erromatarren oitura oiek. Euskalerrria'n betetzen direla esaten digu. Europa osoan, emen ere bai garai batean, gorpuak osorik eortzen ziran, batzuetan, berriz, zati bigunak erreta eta besteetan auts bihurturik. Erroma'n askatasun osoa zegoen eta gorpuak erriko arresitik kanpora eortzen ziran. Baña etxe bakoitzean zegoen Dei Manes, Etxeko Jainkoentzako, aldera bat. Etxea danen egoitza zan: biziena eta ildakoena. Geuk ere geure aurtzaroan, ikusi izan degu gabea, lotartzekoan, sukaldeko suak bildu eta errautsakin estali, ildakoentzat, eurak ere sua bear zuten gauez eta.

Kristauen Eleiza Catacumbas deritzan illerrietan jaiotzen zan: erri arresitik kanpora; an biltzen ziran erasotuak zirelako eta indarkeritik iges egiteko. Toki aietan gorpuak osorik eortzen zituzten. Elizak bere askatasuna lortu zuanean (313 urtean), leku artako zenbait martiri famatuen sepulturan, basilikak (eliza aundiak) jaso zituzten. Martiriaren zaleak elizan bertan eortzen zituzten. Orregaitik edo, kristautasuna gure artean erroto zanean ildakoak, etxetik eleizara eramane zituzten, etxe bakoitzeko sepulturar bertan egiñez. Eta, etxea saldu ezker, sepultura ere berarekin batera saltzen zan.

Etxea eta elizako sepultura bat zirala adierazteko, 'gorputz-bideak' sortu ziran. Etxetik eleizarako sepulturar gorpu eramateko, beti egin bear zan gorputz-bidetik. Uraxe

zan bide bakarra eta ala egiten ez ba'zan, gorpua pasatzen zan tokitik bide berri bat sortzen zan, guztien aurretik nagusia bera joaten ez ba'zan igarotzeko aukera emanez.

Elizako sepultura orren gainean, gorpua an zeuden eortzita, egiten ziran domekaero, ildakoen aldeko eskeintzak: argia, ogia eta bestelako janak, dirua otoitz egiteko... Eta ori, etxe-ko-andrearen eginkizuna zan... Erroma'n etxeo gizona zan apaiza; gure artean apaiz lanak etxeoandreak betetzen ditu.

Etxekoandre berria zetorreanean, lenengo lana zan sukaldean burruntzalia jasotzea etxeoandre zaarraren eskutik; gero, eleizako sepultura gainean ango jabetasuna agertu: etxeo ildakoen aldeko eskeintzak etxeoandre berriak egingo ditu, naiz eta bera beste etxe batetik etorri. Aurreantz, bere etxeo ildakoak aztu eta etxe berrikoak zaindu. Sepultura artze au. apaizak adierazten zuen aurretik zein egunetan egingo zan; Meza Nagusian, jakina.

Illetak zirenean, eleizkizunak ez ziran eliza barruan amaitzen, kanpoan baizik, eleiz atarian. Zenbait tokietan ildakoaren etxera joaten ziran 'segizioan', bata bestearen ondoren, apaiza aurretik. Baña, apaiza ez zan etxe barrura sartuko; atarian geldituko zan. Etxera sartu eta etxeo jaunak edo etxeo andreak, otoitza egingo zuen. Orduan amaitzen ziran illetak.

### Illetako bazkariak

Auek ziran illetaren amaiera berezia eta bearrezkoa. Erroma'ko Caena Novendialis aparten antzera, etxe-koak bazkaria egin bear zuten, ildakoen alde. Bazkari auek askotan ondamentia ekarri arren, eta naiz debekatua agintari guztien eskutik etorri, erriko eta eleizeko agintarien eskutik, euskaldunak danen kontra egin ditu bazkari auek. Etxea zan benetako eleiza asiera-asieratik, eta orregaitik etxean egin bear ziran illetak eta illeta auen sustraia, bazkaria zan: bizientzako eta ildakoentzako.

### Etxe bikoitzak

Etxe bakoitza, familiaren eliza da: eta ez dago beste inoren tartean sartzerik. Orregaitik, etxe batek bi famili ditueanean; bien erdian orma bat jasotzen da tellaturik gora dijoana: Bi bizitzak ondo bereizturik. Zenbaitzuk usteko dute sua izan dala orma orren arrazoibidea, etxe bat erretzen danean, bestea ez erretzeko; baña, asierako asmoa bi bizitzak, bi eleizak, bereiztea zan. Tellatupe batean, bi eleiza alkarrekin ezin zitekean gauza zan.

Illeta bazkariak, gureraño eldu ziranak, Vaticano II'garrenakin amaitu dira; onek illetak arratsaldean egiteko baimena eman zuanean. Orduan aukera galdu zan bazkariak egiteko. Eta, bertan bera galdu ziran.

Aur galduak eta aur-lagunak, etxearen istilla barruan eortzen ziran eta oitura au gureraño eldu da. Kristauak eleizara eramaten zituzten; aur galduak, kristau ez ziranez, lenngo lege zaarrera, tellatupean eortzi bear ziran. Asierako eleiza etxea bait zan.

Etxe-baserriak bakan bakan kokatuak, bakoitza famili batentzako ziran: etxe bat, famili bat bizientzako eta ildakoentzako. Maiorazkoa egiten zan etxearen jabe eta sepulrarena... Biak famili osoarentzat... Gaurko egunez etxeak erlauntzak ematen dute eta famili zaarra, kristautasunaren aurrekoa, galdu zan betirako.

### Erroma lur jota

Keltak eta Germiniarrak, Europeotarrak Erroma'k erditu egin zituen: Rhin ibaiaren ezker aldetik Keltak, erdi erromatar egiñak eta eskubitik Germaniar basatiak. Erroma'ren kutsurik artugabeak. Erri basati auek ego-alderuntz egin zuten, euren aurrekoek aurrerago egin zuten antzera, eta Erroma'ko Inperioaren aurka asi dira erasoka. Erroma'n bertan arazoak ez ziran falta, eta Lejioak frentetik kendu bearrean aurkitu ziran erromatarrek. Urira ekartzeko. Eta Lejio auen ordez, Rhin'eko frentera Kohorte Laguntzailleen Leteak eraman zituzten, erromatarrek ez zirenak eta auekin batera, lurrari lotuta eta lurrakin batera saltzen ziran nekazariak.

Franko eta Alamanes erriak izan ziran Galias. Kelteen lurrean, lenengo sartu ziran erri basatiak, III'garren mendean. 276'ean 60 uri erre eta Euskalerriko Pireneetara eldu ziran... Aien beste berririk ez dakigu izkutueta gordetako diruak ematen diguna besterik; diru altxorra bat Pirenee oñetan ipar-aldera eta Naparroa'ko Liédena'n bestea. Emen 105 denario (langille baten eguneroko alojera) aurkitu zituzten 240'garren urtetik 270'ra egiñiko txanponak. 270'garren urtetik laister erre zuten erria. Etxetik 15 metro-ra agertu dira, metro t'erdiko labeak, zeramika erretzeko. Barcus eta Briscus, baita Clunia'ko diruak ere, garai onetakoak dira. Onek adierazten digu erri basati oiek 276'ean sartu zirala Orreaga'tik aurrera.

Liédena'ko erromatar baserri eder onek, beste orrelakoen antzera, bazituen mosaiko ederrak, piszina beroak...

### Erroma III'garren mendetik VIII'garrenera

III'garren menderate Erroma bere agintea zabaltzen eta aunditzen doa, batez ere irietan, kultura mota guztietan. III'garrenetik VIII'garrenera, larri-uneak etenik gabe datoz batez ere Europa'ko erri basati oien erasoak azkenik ez dutelako: 378'ean Godo eta Visigodoak; 405'ean Suevos, Alanos, Vándalos eta Burgundioak: 493'an Héruloak... 450'garren inguruan, europarra ez zan Atila agertzen da. Erromatarrek Rhin eta Danuvio ibaiak sendtzen saiatzen dira, baña dana alperrik.

476'garrenetik aurrera ez dago Enperadorerik Sarkaldeko Inperioan: orren ordez, basati buruzagi ugari, noiz errege izendatu.

Frankoek Iparraldeko Galia, Loira errekatik Rhin'era, artu dute eta Visigodoek Loira ibaitik egoaldera Pirene mendietaraño. Erri basati auen artean Frankotarrenak bakarrik dirau; eta aiengandik sortu zan gaurko Frantzia.



### Bagaudatarren iraultzak

Bagauda jendea gure artean agertu zan 435'garren urtean, baña Erroma'ko jeneral batek garaitu zitun Arakil'en. Alaz ere, berriro azaldu ziran emen... andik urte batzuetara. Erroma'ko kronikak Bagaudei lapur eta terroristak deitzen dicte: etsai guztiei bezela. Gizartean gauzak gaizki zeudelako sortu ziran zenbait probintzietan jende iraultzaillea. Inperio guztian zerga geiegi, nekazaritza esklabuen antzera, lurra saltzen zanean nekazariak ere lurra-kin batera saltzen ziran. Lur eta lanik gabeko jendea. Erromatar baserri aundiak galdu ziranean, langille asko, eta azkenik, gudariak eurak ere, ezer gabe galditu ziran. Ortik sortu ziran Bagauda multsoak edonun. Euskaldunak ere ez ziran falta euren artean; batez ere Ebro ballarako baskoiak Wisigodotarren aurka burrukatzeko. Azkenik kristauak eurak ere tartean daude, Erroma'k kendu bait zien zituenak eta ez zituenak: aberastasunak eta eskubide osoak.

### Suevoak eta Vandaloak

Suevoek Hispania'ko zatirik aundienetan kokatu ziran eta Egoa-aldean, Wisigodoak; auek, baita Afrika'ko iparaldean ere. Frankoek goitik beera datoz ego-aldera. Godoek 461'ean Novempopulania baskoia arrapatu eta Pirineemendartea. Hispania eta Portugal'ekin berdin egin nai dute. Suevoak baztarten dituzte Galizia eta Portugalera.

Frankoek Euskal-mugara eldu dira eta 507'an Wisigodoak Tolosa'ko erresumatik Hispania'ra botatzen dituzte. Eta orra, euskaldunak Franko eta Wisigodoen artean, burni guria maillu eta ingudearen tartean bezela. Ifar-aldeetik Frankoek eta Wisigodoek ego-aldeetik erasoan gelditzeke. Baña, euskaldunak biai eutsiko diote.

### Justiniano, Orienteko Emperadorea (533-554)

Galdutako Sartaldeko Inperioa reeskuratu nai du eta erasoan ekin dio: Ifarretik eta Egoa-aldeetik, bietatik batera, Mediterraneo'an zear. Erroma'tik, Konstantinopla'ra (Istanbul) aldatu du bere Uri nagusia. Andik Afrika aldera: guztia menperatu eta Hispania'ko Betika ere bai. Baña, Ifar-aldeetik ez du gauza onik egin, ezin izan bait du Italia menperatu. Justino'rekin batera etorri dira ainbat funtzionari eta monje kristauak: Siria (Kapadozia) eta Egipto'n sortu diranak, Betika'ra.

567-571, Franko'en erresuma eta Akitania euskalduna, biak, eskuz-esku dabilta erregearen ondorengoan artean.

### Baskonia'ren Independentzia sendotzen

Bosgarren eunkiaren azken-aldera eta Seigarrenean, idaztietan ez da ezer aitatzin ez Kantabro'ei buruz, ez Euskalun'ei buruz... Leobigildo, Wisigotoen errege izaten eltzen danean, ordutik agertzen dira euskaldunak Wisigo-

toekin burrukan. Afrika'tik musulmanak etorri ziran arteko guztian.

Paperetako ixiltasun orrek adierazten diguna au da: erri basatien denboran euskaldunak askatasuna izan zutela. Baña, Leobigildo erregeak askatasun ori arriskuan jartzen duanean, orduan, armak eskuetan, zaintzen dutela. Garai aietan sendotu zuten euren askatasuna, erri bereizi baten askatasuna.

### Vitoriano erria sortzea (580)

Hermenegildo errege izendatzean Euskalerriaren egoaldetik biurrikeri aundiak izan ziran. Euskalerra osoan zabaldu ziran okerkeriak eta euskaldunen aurkako ekintzak batera egiten dituzte franko eta godoek. Godoek egotik eta frankoek iparretik. Mallu eta ingude tartean, euskalduna.

### Kronika `historikoak'

'Kronika' auek Franko eta Godoek idatzita daude. Euskaldunen etsaiak. Gu beti agertzen gera labur, iltzaille, terrorista utsak bezela; eurak, berriz, zeruraino igotako eroen antzera. Guk egiten ditugunean, triskantxa eta okerkeria besterik ez dira; eurak egiten dituztenean, oorez betetako goraltzak merezi dituzte. Arturo Campion idazle naparrak dionez, gudarostearen gorrotoa, soldaduen gorrotoa, monje idazlearen gelara igo zan. Eurak idazten zituzten gorrotoz betetako kronikak. Euskaldunak, berriz, ez dute sekulan kronika bat idatzi.

### Pirineemendartea euskaldunen babesa

Burruka bikoitz onetan euskaldunak beuren babesa Pirineetan aurkitzen dute: eta garaia danean andik irtetzen dute curen burruka bereziak egiteko; 'Guerra de guerrillas' deritzanak, 587'an Akitania guztian zabaltzen dira...

Gotoen errege guztien asmoa eta gura bizia, esaera onek agertzen du: "Domuit Vascones". Baskoiak menperatu ditu. Baña, ames oietatik musulmanen erasoak esnatu zitun VIII'ganen gizaldian.

### Akitania eta Novempopulania

Asierako euskal Akitania (Dax uria zan Aquis) Bordel'eraño zabaltzen zan eta Garona ibaia zuen bere muga. Gerora, Erroma'ko Enperadoreak Loira ibaiaño luzatu zuen, Galoak eta baskoiak naastuz.

Asparren'go Verus, jainko txikien apaizak, Augusto'ren denboretan, Erroma'ri eskatu zion, eta lortu ere bai, bere eskaria: Novempopulania (asierako Akitania) banatzeko Akitania aunditik. (Loira'ño luzatu zanetik, eta Galoen lurralde zanetik).

Novempopulania bederatzi uri zituen; gerora amabira zabaldu ba'zan ere. Uri aundi auetan galoek eta erromatarrek euskaldunekin batera bizi izan ziran garai batean. Erro-

## EDESTIA

ma erori zanean, frankotarrek nagusitu ziran uri oietan: eta naiz eta uri batzuek desegin, iraun zuten besteak, murriztuta ba'da ere. Euretako bizi-lagunek pozik artu zituzten Pirenee-mendartetik zetozten euskaldunak, lapurtu zieten lurak berreskuratzera.

### Baskonia Duke-erri

587'tik 602'garren urtera sortu zan Baskonia Duke-erria. Frankoek begi txarrez begiraten diote Duke-erri onei eta galerazpen guztiak ipintzen diote burruka bizian. Duke-erri onen zati bat euskaldunen eskuetan dago eta bestea frankoenetan. Gora-beerak Frankoren politikaren neurrian zebiltzan.

621'ean euskaldunek Ebro bailaran aurrera ekin diote. Laister dute Godo eta Franco'en erantzuna: bi aldeetatik batera. Olite erria sortzen dute lagun bezela euskaldunen aurkako burrukarako. Francoek etengabe ari dira Baskonia duke-erria indarrez artzen. Gotoen "Domuit Vascones"en antzera. Alaz ere 635'ean euskaldunek mendietatik irten eta Novempopulania osoan zabaldu ziran. Erasoak bi aldetatik jaso arren, berriro irteten dute burrukara. Godo eta Franco'en bitarte orretan aske bizi dira euskaldunek gora-beerak izan arren.

### Lupo I, Printze, Akitania eta Baskonia'ko Dukea (670)

Felix frankoaren agindupean, bi Duke-erri sortu dira. Onen eriotzean, guztien buru, Lupus I (Otxoa) agertzen da. Dirudenez, aren aukeratzean Jaunek, baita baskoiek ere, parte artzen dute. Errege frankoari buruz, badu Printze onek askatasuna 673'an Konzilio batera ots egiteko Bordel'eko elizbarrutian. Garona ibaiaren aldamenean kokatutako erriska batean egingo da. Dax eta Bigorra'ko Gotzaiak falta dira.

Lupo'k berrogei urtez agindu zuen eta 710'garren urtean, bere ondoren, Eudon dukea dator, Lupo'ri esker eta bere esku indartsuari sor zaio Baskonia'ko Duke lanerako euskaldun jatorrizko gizonak sartzen ba'dira.

### Eudon Aundia

Aundia esan zitzaion bere indar, ausardi eta ekintzarako gaitasunagaitik. Akitania eta Baskonia'ko Duke egin zuten (710), musulmanek Hispania'n eraso jo zutenean (711). Ortik aurrera Akitania eta Baskonia biak lanean ekingo dute eraso ori geldiarazteko.

Musulmanek Hispania'n sartu ziranean, Wisigodo'en Rodrigo erregea, gure artean zebillen Iruña artu eziñik. Lenego sartu zana Tarik izan zan (711, 713, 714) eta arren ondoren Muza (712, 713, 714) eta Hispania osoan zabaltzen dira. Baztarretan sendotu ziranean, Orreaga'tik aurrera Bordel'era jotzen dute eta errotik larrutu. Eudon'ek erasoari eutsi ezin eta Frankoen errege Carlos (Marte) billatzera, laguntza eske, joan zan. Moroek Akitana aundian zear doaz

Poitiers ingurura, Loira ibaitik gertu, baña Akitania'n oraindik. Bere asmoa Tours'eko Abat-etxea arrapatzea zan.

### Poitiers (732)

Eudon eta Karlos, ingumariko erriekin batera, aurpegi ematen diote Abderraman erregeari Poitiers errian. Burruka izugarri baten ondoren, gaua danean, musulmanek kanpamentuko suak bisten dituzte... Baña, goizean, an ez zegoen iñor. Illunaren laguntzaz alde egin zuten guztiak, bertan untzirik Bordel'en arrapatutako aberastasun osoak.

Moroen gudarostea bitan banatu zan: batzuek, Toulouse'ra eta besteak, Erronkari'tik beera. Bertako jendeak Olas'teko estuan, Leire'tik gertu, eraso zion eta Abderraman erregea il zuten. Orregaitik Erronkari'ko arrizko ikurraren moro baten irudi dago izen onekin: Abdurramen.

Abderraman'ek Afrika'tik ekarri zitun gudari berriak eta gudaroste oso aundiakin erriz erri zetorren baztarrak menperatzen ildakoez betetzen eta lapurreta bizian. Ainbeste aberastasunek azkenerako estorbu besterik ez zien egiten. Bi gudarosteak alkarri begira egon ziran aste bete osoan, nundik jo asmatzeko. Zortzigarrenean Abderraman berak daramazki gudarozteko zaldunak, kristauen lantza-esiaren aurka. Eutsi die erasoai eta esirik ez da apurtu. Burrukak ez du etenik egun guztian; baña, Eudon'ek bere jende akitani eta euskaldunekin, jira bat eginda, moroen kanpamentuan sartzen da eta su ematen dio. Sua euren gibeletik ikusita musulmanek uste dute atzetik datorrela kristaun eraso eta ortik sortzen da burrukan ikaragarriko naaspilla. Gauaren illunakin batera alde egin zuten betirako Europa'tik.

### Eudonen eriotza

Egoaldetik moroen kontrako burruka ez zan bereala amaitu. Karlos Martel Eudon'en lagun moroen aurkako ekintzetan, 735'ean eraso egiten dio bere lagunari, eta il. Burruka jarraitzen du Eudon'en semeekin.

Moroek egoetik Frankoek ifarretik, orra berriro Euskal-erria mallu eta ingudearen tartean. Une orretan asturiarrak agertzen dira Sarkaldetik. Alfonso I erregea buru dutela. Ebro ballaratik aurrera datoz eta Bizkaia'n sartzen dira Karranza eta Sopena bere mende artuz. Urteak 743 ta 745.

Eudon'en ondorengo buruzagia Waifre euskalduna da (744-768), frankoek Akitania artzean (768) erailla eta Baskonia alde batera ipintzen dutenean Akitania aundia, Loira ibaitik Garona ibaiara, euretzeko artuko dute. Orrela Baskonia asierako Akitania'ren neurritan gelditzen da. Karios erregea ilten danean, bere Erresuma zatitu egingo du: Karlos (Magno) eta Karloman'eri (768-771).

Lupo II, Waifre'ren ondorengo. Karlos'ek eraso egiten dio Baskonia'ri eta Lupo II bere mende gelditzen da. Berdin egiten du Europa'ko errege guztiekin eta bere Erreinoaren muga, Ebro ibaiaren bailaran ipiñi nai du.

ARRINDA'TAR ANES

---

## **Ipuĩtxua**

---

# **TXERRENBASOA**

---

Olazarreta'ko aldian cuan leku bat ezagututen zana TXERRENBASOA izenez.

Joanitzanian lenengo aldi baserri aretara entzuneben bertakuen artian TERRENBASO aren edesti billdurgarri bat. Leku aretara ez zan joaten iñor beinbe.

¿Zer gaitik?- itaunditenitzan: itaunebenian baten bateri erantzuten eben: "Obeto ez jakitia"

—Baña, ¿zer gaitik?- berriz itaunen.

—Oraindño ara joandianak, bizirik urtenebeñak, gera-tu dia buruaz erreta-lez, oñak okertuta, erdi edo guztiz zoratuta.

Baña atzenian jakineben, agura batetik, Txerrenbasoko beste edesti bat. Olazarrettako beste erri aldian- iseneko Erriotza- igesten ebein lapurrak eskututen zian baso aretan, ta orregaitik isaten ebein baserrikuak "txerrenak". Ondik dator mendi orren izena.

—Baña aguriak jarraitu eben orren ondoren, zelan bein-baten etorrizala Saspibai erriko apaiz bat Olazarretara, apaiz gaste bat, guztiz biotza, ta oneri, jakin alaz bazerritar artian ezaten ebena TXERRENBASO ondoren, zartu zakon buruan, berak ezagutubiar ebela zen zan leku aren egi-egia. Orretan, baten bat bildurtuta apaiz gazte on aren asmoas esan cutsan:

—Jaun: Ona izango da jakin eizun, baso ori dagola lapur-ren ekuetan. An zartzen dana galduta da. Ta guretzat, beo-ren bizitza dago danen ta danan gañetik.

Apaiz gazteak erantzun eutsan: "Ikustendot esatendo-zuenez nai dozula onena neretzat. Baña nik eginberdot eginberdotena danen gañetik.

Bazerrikoak guztiz larrituzian apaizen erantzunaz.

Onelan ba, beste egunian goiz-goizean joan zan TXE-RRENMENDIRA.

Esan ta egiñ dana zan bat. Apaiz gazte a zartu zan TXE-RRENMENDIAN, ibillten inguru nekezetan ordu bat baño geiago, ta zartuta euanain, ikusi eben gizon bat jazarrita zugatz baten, gero, beste zugatz baten cuan beste gizon bat, ta orrelan euzeiñ zugatz baktotzian gizonak beari begira. Ikuzi alaz an goian, zugatzetan, danairi, apaiz gasteak esan eban:

—¿Anaiak, Nere anai maiteak! Ona etorri naiz, naizelako lenengo ta danen gañetik, zuen anaia.

—Nik dakot zuek dakozena: Biotz on ta aundi bat. danok bardin gara. Anai onak lez gertu lagunduteko gure artian.

—Ni nator Goikuen izenian. Gizonen artian iñok ez dost agindu etorteko ona. Emen nago zuen anaia naizelako, ta zuen aldian nere biotza postatunez beteta dagolako.

Basoko gizon areik entzuten ebein apaiz gaztiak esaten ebena, itxaiten eusein zelan izango zan azkena.

—¿Nere anai maiteak!: Egun on ta aundi onetan ekinlez-kegu iñok ez dabena egiñ: Jaso, emen, mendi erdian, etxe bat, Goikuen izenean. Onelan ikusiko dabe ludi guztian zelan anaitasunaz ta gizonen bardintasunaz, egiñ lezken ludiko gustien zorion aundiena.

—Ekiteko, danon gogo ona dago aurretik, ta alabe bier-dogu batu aldana jazoteka emen Goikuen etxea. Orretara-ko ekartendot nere kapelia, batzeko, bakoitzak emun lez-kena.

Ta, orretan, emun eutsan aldian cuan gizonari kapelia, onek bestiari, ta orrelan kapelia eruanzan eskutatik eskuari, atzenian elduteko apaizen eskuetara, baña UTZIK, txan-pon bat barik.

Apaiz gazte arek ikusi ebenian kapelia elduzala - UTZIK- bere eskutara, ipiñi zan belaunbiko ta arpegia ta besoak gorraldera, esan eben:

—¿Ezkarrik Asko Jauna, kapelia nere eskuetara eldula-ko!

—¿Ezkarrik Asko, nere anai maiteak, ikusten dotelako zuen biotz aundi ta ona.

Amaitu zanian batzar a "anaiartian" apaizak urten eben TXERRENBASO'tik, ta elduzan Olazarreta-ko bazerri erdira; ango bazerritarrak ezin zinistubiar ikusten ebeña: Apaiza euela bizirik egonda gero TXERRENBASO barruan.

Itaundu eutzanian baten batek zer euan ta zelan zan barruan TXERRENBASO-a, esan eben:

—Ikusi dot, Goikoa an be dauela. Nere zinismena aundi-tu da, Orregaitik nago guztiz pozik!

Orreaño, agure arek esaneustana TXERRENBASO'en ondoren.

ONTZATEGITXU

CARACAS. VENEZUELA

Ipuin au dago idaztita Bizkaiko antxiñako euskerean.

**BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ**

# BAKIOKO ALDERDI POLITIKOAKAZ BERBETAN

Martiazen 29an EAJ, HB eta EAko ordezkariak batu ginan Lizarra-Garaziko Itunak gure errian sortu dauan ilusinoaz berba egiteko. Barriketa luzca izan zan arren, sano interesgarri eritxi deusagu.

Ori dala eta, ona emen daukazuez oso-osorik Bakioko alderdi politikoek izendatutako ordezkariak giro lasai eta barean egindako iruzkinak.

Azpitarratzekoak dira, era berean, ainbatetan irurek alkarreri egindako konplizitate, sopikuntasun eta adostasun keinduak, gaur egun bizi dogun egoera itxaropentsuaren adierazle argiak.

Txirritxola: Lizarra-Garaziko Ituna sinatu eta, ostean, su etena bideratukeran ezarritako elburuak, au da, euskal erabagigunea eta bakea lortuko diralakoan zagoze?

Kepa Uriarte: Bueno, egia esan ez dakit orreexek diran Lizarrako Itunaren elburuak; izan be, Lizarrako sinatzaileen elburua ez da bakea bera? Eta bakerako bide batzuk zehaztea? Orixe itaunduko neuke, ze ez dakit ori besterik ez dan; dana dala, aitatu bear dot apur bat asao lotzen jatala, geienbat barruko kontuak bear lez ezagutzen ez dodazalako.

Edozelan be, ituna andik abiatzen dalakoan nago, ze argi dago bakea ez dana polizi ekintza utsez lortuko. Orduan zein da bakea eskuratzeko modua? Ba, azken baten danok onartu eta guztion elburuak eskuratzeko moduko joko zelaia prestatzea.

Nik, Lizarrako Ituna bakotzak bere bidea jorratu eta ebagitzeko aukera garatzea aalbideratuko dauan prozeduratzat artzen dot; izan be, akordio orokorrera ailegatu aal izateko, ezinbestekoa izango da beste indar batzuk be foro orretan esku artzea eta, ortik abiatuz, urtenbidea diseinatzea. Jakina, urtenbide orretarako, batzuen ikuspuntua da euskal erabagigune ori errespetatzea.

Patxi Barandiaran: Nire ustez, Lizarra-Garazi Itunaren garrantzia da leenengoz ainbat alderdiren artean akordio batera eldu dala gatazka non dagoan kokatuta esanez, gatazka politikoa dala azpitarratuz; orrela, gatazka politikoa orreri erantzuna emoteko metodoa planteatzen da, au da, alkarrizketa eta negoziazioa, beti be Euskalerrria anitza dala kontuan artuta eta, era berean, alderdi guztiek parte artu daikiela prozesu onetan.

Beste alde batetik, esan bearra dago Lizarra-Garaziko Itunak elburua guztiz demokaratikoa planteatzen dauala, au da, azken berba erriarena dala. Ori orrela ulertuta, beraz, euskal erabagigunea errespetatua izateko bidetzat artu daiteke, bai eta bakerantz abiatzeko modutzat be.

Begoña Zubiri: Niri begitantzen jat batasun onen bidez emon dan aurrerapausoa sano garrantzitsua dala Euskadin bideratu gura doguzan lorpenak eskuratu aal izateko.

Beraz, nik bakea lortzeko itxaropena daukat; ori bai, guztiok ikusten dogu gatazka izango dala, geienbat, estatu mailako

alderdiek onen kontrako jarrera artu dabelako. Ala eta guztiz, ziur nago bakea eskuratuko dana.

Tx: Zelan baloratzen dozue sindikatu abertzaleek eta gizarte mailako ainbat erakundeek bultzatu daben bidea Lizarrako Ituna sinatu aal izateko?

Kepa Uriarte: Nik uste dot sindikatuek egindako bearra ona eta ausarta izan dala, ze prozesu oneri arlo sindikalak emon eutsun zelanbaitako asikera.

Edozein modutan, alderdiak be sartu egin dira prozesu orretan ausardiaz jokatzat eta orrek bere fruituak emon bearro dauz.

Eta or beste meritu bat be egon da: abertzaleez ganera, IU-EB Itunaren barruan sartzea, orixe da-eta frentismo salaketari aurpegi emoteko laguntza.

Dana dala, itaunari erantzuna emoteko, sindikatuen bearra oso positiboa izan da une pozgarri onetara ailegatzen laguntzeko.

Beraz, itxaropentsu egoteko momentua da eta, nire eritxiz, alderdiak, sindikatuak eta gizarte mailako erakundeak proiektu baten inguruan alkartuta ikusteak gizartea bera bizkortu eta errotarrei modu positiboan eragingo deute.

Patxi Barandiaran: Nire eritxiz, bost urte bete barri dauzan ELA eta LABen arteko akordioa zelanbaitako akuilua izan da alderdi politiko zein gizarte mailako erakundeek alkarlanerako pausu au emon daien.

Beraz, oso garrantzitsua izan da, ze sindikatuen arteko akordioak gerora kutsatu dauz gizarte mailako ainbat erakunde. Dana dala, au beste ikuspuntu batez lotuko neuke, ze ETak su etena aldarrikatukeran argi esan eban ez zala Espainiako estatuari zuzendutako su etena, ezpada euskal gizarteari. Bearbada, ETak momentu orretan ikusi eban zelango giroa mamitzen ebilen eta zelango planteamendu barriak sortzen ebiltzan, euskal gizartearen eskuetan izteko borroka politikoa au. Auxe da. beraz. kontuan artu bearreko beste puntu bat.

Begoña Zubiri: Egia esan, ez dakit zeatz-meatz zelan gauzatu zan sindikatuen arteko alkarlana, baina argi dukat ELAk eta LABek erriaren onerako bearrean dierduena, eta, beraz, oso gauza positioak egin dabiltzana.

Era berean, aitatu bear dot ELKARRIK bultzatu dauan bidea oso gustuko izan dogula, egin dauzan akatsak alde batera itzita. Beraz, ostera be dinot oso gustuko izan dodala ELKARRIK burutu dauan bearra.

Tx: Argi dago bakea jadesteko bear-bearrezkoa izango dana estatu mailako alderdiak prozesuan esku artzea. Zelan ulertu bear da orain arte euki daben jarrera?

K.U.: Bai ori argi dago eta itunak aldarrikatzen dauan beste puntu bat da, au da, Euskalerrriko etorkizuna erabagiteko zerikusia daukenek artu bear dabela parte prozesuan. Beraz, zalantza izpi barik, orreek onetan inplikatzat ezinbestekoa da;

guztiagaz be, orain arte ez dabe onetan sartzeko asmorik azaldu, komunikabide bidez zabaldutakoaren arabera.

Beste kontu bat da ea zelán ulertu bear dan orain arte artu daben jarrera?

Esan leiteke ezustean arrapatu dauazala; izan be, asikerasikeratik su etena faltxua izango zala aitatu eben, eta, geroago, itunaren elburua frontea sortzea zala. Bide orretatik oratu deutsoe ogoera oneri, argi eta garbi egonda be, ainbestetan salatzen daben frontearen antzeko jokabidea daukena PSEk, PPK eta, zeresanik ez, UAk.

Era berean, gogoan izan bear da auteskunde giroan murgilduta gagozala, eta, aurki, Euskalerrriaren kontra berba egiteak Espainian bertan botoak irabazteko bidea emoten deutse. Ganera, abertzaleak alkartuta ikusteak min andiago egiten deutse beste edozein gauzak baino, eta gu alkarregaz eta alkarlanean jarduteko beldur dira.

Orrela, aalegin guztiak eta bi egiten dabilta eta bide guzti-guztiak darabiltzate gu nekatu eragin eta egoera jasanezin biurtzeko.

P.B.: Bai, bide beretik joz, nire ustez eurek, alde batekoek zein beste koek be, onetan artu bear dabe esku, gatazka onetako partaideak diralako. Ez da aaztu bear, berbarako, PSOEk gatazka onetan euki dauan jokabidea, au da, independismoaren kontra egin dauala GAL eta guzti, estatu mailako terrorismoa erabiliz.

Era berean, badakigu PP nondik datorren; azken baten frankista oiak dira eta estatu batu eta uniformistaren defendatzaile amorratuak.

Beraz, orreek be jesarri bearko dira gatazka onen zuzeneko partaideak diralako. Jarrerari jagokonez, Kepagaz konforme nago eta azpimarratu gura neuke itzelezko beldurra deusaela demokraziari. Izan be, beti jokatu dabe kristaldegi baten dabilen elefante baten modura, au da, indar guztiagaz, "botere" berba bakarrik ulertzen dabelako.

Orrexegaitik, orain ez dakie zer egin, zelán jokatu. Egia da botoak eskuratzeko asmoa be ortxe dagoana, baina auteskundeak igarota zeozer asmatuko dabe prozesu au luzatzeko.

B.Z.: Esan daiteke estatu mailako alderdiak urtenbide bako kale estu baten sartu dirala, Lizarra-Garaziko ituna zer dan ulertu gura ez dabelako.

Uste dot, beraz, ez dabela ezer positiborik egin, ze prozesu onetan sartu leitekez, eritxi guztiz kontrajarriak euki arren.

Dana dala, ez dabe ezer be egin, akaso gu alkarlanean ikusikeran izutu egiten diralako. Arazoa da gero eta itxiago dagozala eta zirkulua gero eta txikiago egiten diarduela eta, ez dakit andik zelán urtengo daben, baina nekez lortuko dabe.

Tx: Geiegitan esaten ez bada be, Ituna bideratzeko arrazoirik nagusienarik bat indar espainolistak artzen ebiltzan indarra neutralizatzeke asmoa izan da? Au da, bakea eta euskal erabakigunea eskuratzeko guraria bezain garrantzitsua izan da leengo bidetik abertzaletasuna beerantzko joera baten murgilduta egoala egiaztatzea?

K.U.: Nik ez dot uste indarra galtzea danik, akaso, batetik, izan daiteke gailurra jo edo jo ez, eta, bestetik, beste zeozertan aalegintzeke bearra. Edozelan be, nik ez neuke esango indarra galtzea izan danik, ez alderdi baten ez besteren aldetik. Bearbada, etsipenagaitik batzuek gitxiago igon eben botoetan; pro-

zesu onek, bada, itxaropena sortu eta jende geiago ipini dau martxan. Dana dala, ostera be dinot ez dodala pentsatzen pauso au guztia indar galtze baten ondorioz emon danik.

P.B.: Gure alderdiaren kasuan be, argi dago ez dana orrelakorik egon; ganera, guk beti planteatzen izan dogu botoena, garrantzitsua izanik be, ez dala dana. Izan be, ez gagoz egoera normalizatu baten, au da, ideia guztiak era zabal eta orokor baten defendatzeko egoeran.

Zergaitik ori?

Ortxe dagoalako konstituzinoaren mugabat, independentismoa zelánbait jokoz kanpo dago marko onetan; orduan, botoena ez da benetako neurri bat, egoera normalizatu baten izan daiteken arren.

Dana dala, gaurko egoeran ez da benetako neurria. Ori dala eta, abertzaletasunak gora edo beera egin aal izango dau egoeraren arabera, ez gagozalako egoera normalizatuan.

Indarra galtzearena ez da arrazoi bat izan, benetako arrazoia izan da urteak joan urteak etorri danok konturatzea emen ez dala aurrerapausorik emoten. Izan be, indarrean egon diran estrategiek porrot egin dabe, kasu baterako Ajuria Eneako itunak gizartea urteker a bako bide batera croan dau ekintza politzialak babestuz.

Beraz, argi ikusi da bide orretatik ezin zala ezer be egin, eta orixe izan da prozesu au bultzatzeko arrazoirik beinena eta ez indarra galtzearena.

B.Z.: Nik ez dot uste indarra galtzea izan danik, ze momentu onetan garrantzitsuena bakea eta onen atzean dagozan gauza guztiak lortzea izan da.

K.U.: Or bai, nik beste gauzatxu bat ikusten dot: estatutuaren bidea agortuta dago, ze batetik transferentzia batzuk emon dira, gero ostera be beste lege batzuen bitartez murrizteko. Orrek be eragina euki dau bide au ez dala baliagarria esankeran; izan be, eldu gara eldu leiteken lakuragino eta emendik aurrera egiteko beste zeozer bear da. Orrek be eragina izan dau gure alderdian.

P.B.: Nik oso garrantzitsua dan gauza bat aitatu gura neuke: eraikuntza nazionalerako dagozan tresnak oso murriztak izatea. Berbarako, PFGZaren (IRPF) edo zergen kasuan jokabidea argia izan da: konstituzinoaren aurkakoak dirala esatea. Beraz, joko politikoko orretan geien sartuta egon diranak eraikuntza nazionalerako beste tresna batzuk bear dirala ikusi dabe, eta bakea ori eskuratzeko funtsezko oinarria da.

Tx: Azken aldion estatu mailako komunikabideetan presino mediatiko izugarria egiten dabilta kale borroka dala eta. Zelán eragin aal deutso presino onek euskal alderdien alkarlanari?

K.U.: Abertzaleen aldetik, nik uste onek geiago alkartu egin gaituala, ze, azken baten, arrikadak beti izaten dira geurtzat; alde orretatik, berez, mesede bat izan da. Dana dala, gure gizartean badago bide onetan ain sartuta ez dagoan jende mota, baina presino orrek segitzen badau pertsona orreek be, begiak zabalik badaukez, konturatuko dira Espainia aldean zeozer txarto dabilela.

Ganera, au ez da kontu barria, istorian ainbatetan gertatu jaku, ze Franco geunkan artean alkartuago ibiltzen ginan, Franco ilda diferentzia nabarmenagoak agertu ziran arren. Orain antzerako zeozer gertatzen jaku, ez da era eta sasoi artako dik-

## ERRIGINTZA

tadura, baina diktadura mediatikoa ortxe daukagu. Ganera, leenago prentsa mota batek gauza bat edo bestea esaten bae-ban, ba, zalantzan ipinten zintuan, baina orain guztiok dakigu kanpaina baten barruan datorrena eta, beraz, ez dogu sinesten. Alde orretatik, prozesu onetan sartuta gagozanok geiago batzen gaitu; penagarria da emendik kanpo ez dagozan beste pertsona orreengaitik.

P.B.: Galdera ondo planteatuta dago, ze estatu mailako komunikabideak dira presino ori egiten dabiltzanak edo estatuari zein estatuko indar ekonomikoei lotuta dagozanak, "El Correo" eta "El Mundo" esate baterako.

Dana dala, euskal esparruaren barruan bear egiten daben komunikabideetan aldaketak somatu dira, kasu baterako EITBn, arazoa beste modu batera, modu orekatuagoan, planteatzen dabiltzalako. Estatu mailako komunikabideen bearrari jagokonez, estatu mailako alderdiak ain gogor ibilita, zer itxaron daiteke? Askotan, dana dala, ez dago argi nor dan noren morroia, baina joko bera egiten diardue: Zergaitik? Kale borrokagaitik? Ba, kale borrokarik ez balego, beste arrazoi edo argudio bat topatuko leukie gure kontra egiteko, eta or ainbat adibide ikusi doguz: Josu Ternera gaz egondako arazoak, kurdoen gaia.

Edozein modutan, bada azpimarratu bearreko puntua: onek guztiak ez dabela ezer be egiten bakearen alde. Esan leiteke momentu onetan estatu mailako komunikabideak gatazka edo gerra bultzatu gura dabela.

B.Z.: Egia esa, argi dago kale borroka prozesua galgatzeko erabilten dabiltzana; edozein modutan, bein kale borroka amaituta, beste gauzaren bat plazaratuko dabe. Arazoa, azken baten, gu baketan ez egotea da, eurek gura ez dabelako ezelan be gu baketan egotea. Alde orretatik, kale borroka ez da bape ona, euren atxakia ezin ohea emoten deuselako.

P.B.: Leen esan ebin ETA gelditu arte ez ebela ezer be egingo. Une onetan ETA geldirik dago ez dabe zirkirik egin.

Dana dala, itaun onek naiko garrantzitsua dan beste zati bat dauka: ea presino onek eragina euki dauan alderdi abertzaleen alkarlanean? Azpimarratzekoa da Lizarra-Garaziko ituna sinatu ebenen artean zelanbaiteko blindajea dagoala, au da, arazo kointuralek ezin dabe prozesua gelditu.

Esate baterako, Gereztaren kasua, oso larria dana eta sumo andiak sortu dauazana aor daukagu, baina prozesua ez da gelditu, aurrera doa eta alderdi guztien erantzuna erantzun politikoa da, leengo barikuko kontzentrazioa, egingo dan ordubeteko lanuztea. Orduan, alderdi abertzaleek oso garbi dauke: aurrera egin bear da oztopo guztien ganetik.

Tx: Bearrezkoa da, beraz, kale borrokari amaiera emotea?

K.U.: Nik uste dot baietz, ona litzatekela kale borrokari amaiera emotea; guztiagaz be, duda barik, alderdi espainoliste beste jarrera bat artu bearko leukie, eta era, berean, komunikabideek, ze emoten dau baten batek orkestra baten modura zuzentzen dauazala edabideok.

Manipulazio ori gelditu bearko leukie; dana dala, kale borroka etetea oso onuragarria litzateke eta andik aurrera ikusi bearko geunke nondik joten daben, zeozer asmatu eta zozertan aaleginduko diralako.

Orrela, prozesuan ain sartuta ez dagoan jendeak, oso identifikatuta ez dagoanak baina borondate onez dabilenak, beste datu bat eukiko leukie ikusteko: "leenago auxe izan da atxakia, orain beste auxe da, gero bestea da". Gauzak argiagotako lotuko

litzatekez eta maskara beerago geratuko litzakie.

P.B.: Galdera oneri gauza bat geitu bear jako: bearrezkoa dala beste bortizkeria modu batzuk gelditzea. Azken baten, kale borroka egoera jakin baten ondorioa da, ez da zergaitia ondorioa baino, eta zergaitiak desagertzen badira ondorioak be bai.

Edozein modutan, kale borrokaz ganera, badira beste ondorio batzuk: presoan senitartekoen egoera, atxilotuek jasan bear izaten dabezan torturak, exiliatuen egoera.

Azken baten, ortxe beste bortizkeria zuri batzuk daukaguz, esaterako euskeraren aurkakoa.

Bortizkeria mota orreek guztiak amaitu bear dira, ze prozesu baten gagoz eta prozesu onek fase ezbardinak daukaz, asikerako fase baten alkarrizketa, danok maai baten inguruan batu eta gatazkaz berba egitea planteatzen da, baina emen bakarrik gagoz alde batekoak, besteak be jesarri bear dira euren biolentziak gelditu eragiteko; izan be, kale borrokaren eragina beste bortizkeriakaz gonbaratzen badogu askoz txikiagoa da, naiz eta propaganda aldetik askoz andiago biurtu.

Orduan, nire ustez, kale borrokaz bakarrik berba egitea tranpa edo amarru baten sartzea da, emen beste ondorio batzuk dagozalako kale borroka baino tamalgarriagoak diranak.

K.U.: Dana dala, nik, bai, uste dot kale borrokak Lizarra-Garaziri egiten deusola kalte; nik urrago, parajeago sentitzen dot ori eta gurago neuke ori leenago gelditzea bestea baino, ze beste biolentzia ori aurrean dagoanarena da, a be oso kaltegarria dogu, baina kalte borrokak gure justifikazioak murriztu egiten dauz.

B.Z.: Komenigarria da kale borroka amaitu daiten, ze estatu mailako alderdiek atxakia orreri oratu eta ez dira andik mugitzen eta ez deuskuez presoak ekarten eta ez dabe ezer be egiten. Beraz, komenigarria izango litzateke kale borroka gelditzea; dana dala, ori egitea gatazkoa izango da neurri baten bear lez kontrolatzen ez dan gauza bat dalako.

Tx: Aurreikusitako dozue egoera gogortu eta atzera pausok gertatu daitezkeza edo prozesu barri onek ez dauka atzera biderik?

K.U.: Nik ez dot uste atzera biderik izango danik. Bearbada ez gara aurrera joango gura dogun bese eta bear dogun bezain arin eta bearbada sofritu bearra egongo da, bidean gertatu daitezke eta era bateko edo besteko gauza batzuk, baina, nik uste dot, leen aitaturako arrazoiengaitik sartu bagara prozesu onetan, aurrera egin bearra dagoala.

Baikortasunez ikusita, onek aurrera egingo dualakoa nago, eta oztopoak egonda be, ez dot atzera biderik ikusten, ze konfidantza emoten deustez alde batetik eta bestetik entzuten dodazan azalpenak eta adierazpenak. Ortxe ainbat froga euki doguz: Gereztari buruzko zalantzak eta kale borrokaren ekitaldi batzuk, baina gauzak, beintzat, ez dira arago joan.

Ganera, "Euskal Herritarrok" taldearen aldetik emon diran azalpenak eta abar konfidantza emoteko modukoak izan dira.

P.B.: Ilusinoa emoteko prozesu baten gagoz eta derrigorean baikorrak izan bear dogu.

Dana dala, dogan ez dogu ezer be lortuko, au da, aurkariengandik etorriko jakun ordainsaria ez da debaldekoa izango, eurek ez deuskue-eta egun batetik bestera emongo gura doguna, borrokan egin bear da eta ez bakarrik alderdiek, gizarte osoak emon bearko dau bearrezko erantzuna.

ZIDURI

# ORI DOK EUSKERA, ORE!

## Berba-aurrekoa

Bai, onantxe niñotsan neure buruari, "Odolezko laz-tana" deritxan idazkuna irakurri nebanean (ZER illero-koa, jorrraila-aprilla, 1999, 10-13 orri.).

Idazlea Aurre Apraiz'tar Balendin, euskal barrutian ezaguna.

Nik begiko eta gogo-gogoko izan dot idazlan au. Aspaldi-aspaldion irakurri izan dodazan idazkUNETATIK zirrarak edo biotz-dardarak geien egin daustan irakurgaia.

Zer dala eta?

Arriduraz zurtz eginda nago Aurre Apraiz jaunak XVI garren eta XVIII garren gizaldietan errian erabilli oi ziran eta gure egunotan erriko erabilleran galdurik ditugun aditz-jokoak, eta ainbat gaiñera, lanaren barruan dakarskuzalako gaurko irakurleentzat jakingarri izan daitekezenak.

Orrexegaitik, bai, orrexegaitik, idazlan ori euskera-aren aldetik edonori irakasgarri izan dakiokela esango neuke.

Bai, bai, bada alderik eta joanaldirik gaur-egun libu-ruetan eta aldizkarietan dakusgun euskeratik Aurre Apraiz idazleak darabilskun euskerara. Bai, bada alde-rik!

Baiña, Aurre Apraiz'tar Balendinek idazlan orretan dakazan XVI garren eta XVIII garreneko adizkiak aita-tu aurretik, XVI ganen eta XVIII garren mendeetan euskeraren arlorra - bizkaierara eta gipuzkoerara beintzat - aditzari gagokiozala, jausi zan aldakuntza nabarmena-aren barri emoteari, ezinbestekoa deritxat, irakurleentzat argibide izan daiten.

Au dala eta, nire iruzkin au BITAN arilduko dut, iruzkin batean egiteko luzeegi joango litzakit eta: 1) XVI ganen mende inguruan euskal aditzean izan zan aldaketa aundia, labur-labur aitaturik eta Aurre Apraiz jaunaren idazlanean dakusguzan aldi aretako adizkiak argitara ekarririk, leenengo. 2) XVIII garren gizaldian euskeraren erabilleran izan zan barrikuntza itzela adie-raziz eta idazle beronen idazkunean datozen garai bere-ko adizkerak agirian ezarriz, bigarrenengo. Iruzkin bi, beraz, oraingoa eta urrengoa.

Euskal aditzaren barrutian XVI garren mende-  
jazo zan aldakuntza (XVII garren leen zatia barruan  
dalarik)

## ADITZ IRAGANGAITZA NOR/NORI ADIZKIAK

### EGITERA: ORAIN-ALDIA

XVI GARREN GIZALDIAN		GURE EGUNOTAN	
		NIRI	NIRI
ZU	(etorri)	zakidaz	zaiataz
A	(etorri)	dakit	jat
ZUEK	(etorri)	zakidaze	zaiataze
AREEK	(etorri)	dakidaz	jataz
		ZURI	ZURI
NI	(etorri)	nakizu	naiatzu
A	(etorri)	dakizu	jatzu
GU	(etorri)	gakizuz	gaiatzuz
AREEK	(etorri)	dakizuz	jatuzuz
		ARI	ARI
NI	(etorri)	nakio	naiako
ZU	(etorri)	zakioz	zaiakoz
A	(etorri)	dakio	jako
GU	(etorri)	gakioz	gaiakoz
ZUEK	(etorri)	zakioze	zaiakoze
AREEK	(etorri)	dakioz	jakoz
		GURI	GURI
ZU	(etorri)	zakiguz	zaiakuz
A	(etorri)	dakigu	jaku
ZUEK	(etorri)	zakiguze	zaiakuze
AREEK	(etorri)	dakiguz	jakuz
		ZUEI	ZUEI
NI	(etorri)	nakizue	naiatzue
A	(etorri)	dakizue	jatzue
GU	(etorri)	gakizuez	gaiatzuez
AREEK	(etorri)	dakizuez	jatzuez
		AREI	AREI
NI	(etorri)	nakie	naiake
ZU	(etorri)	zakiez	zaiakez
A	(etorri)	dakie	jake
GU	(etorri)	gakiez	gaiakez
ZUEK	(etorri)	zakieze	zaiakeze
AREEK	(etorri)	dakiez	jakez

# EUSKERA

## EGITERA: LEEN-ALDIA

### XVI GARREN GIZALDIAN GURE EGUNOTAN

		NIRI	NIRI
ZU	(etorri)	zintzakidazan	ziniatazan
A	(etorri)	ekidan	jatan
ZUEK	(etorri)	zintzakidazen	ziniatazen
AREEK	(etorri)	ekidazan	jatazan
		ZURI	ZURI
NI	(etorri)	nintzakizun	niniatzun
A	(etorri)	ekizun	jatzun
GU	(etorri)	gintzakizuzan	giniatzuzan
AREEK	(etorri)	ekizuzan	j atzuzan
		ARI	ARI
NI	(etorri)	nintzakion	niniakon
ZU	(etorri)	zintzakiozan	ziniakozan
A	(etorri)	ekion	jakon
GU	(etorri)	gintzakiozan	giniakozan
ZUEK	(etorri)	zintzakiozen	ziniakozen
AREEK	(etorri)	ekiozan	jakozan
		GURI	GURI
ZU	(etorri)	zintzakiguzan	ziniakuzan
A	(etorri)	ekigun	jakun
ZUEK	(etorri)	zintzakiguzen	ziniakuzen
AREEK	(etorri)	ekiguzan	jakuzan
		ZUEI	ZUEI
NI	(etorri)	nintzakizuen	niniatzuen
A	(etorri)	ekizuen	jatzuen
GU	(etorri)	gintzakizuezan	giniatzuezan
AREEK	(etorri)	ekizuezan	jatzuezan
		AREI	AREI
NI	(etorri)	nintzakien	niniakien
ZU	(etorri)	zintzakiezan	ziniakezan
A	(etorri)	ekien	jakien
GU	(etorri)	gintzakiezan	giniakezan
ZUEK	(etorri)	zintzakiezen	ziniakezen
AREEK	(etorri)	ekiezan	jakezan

Jakingarriak 1.— "Gure benetan goragarri eta lar aintzatuia izan dan ikako jokabideak triskantza itzela ekarri dau aditz laguntzaillearen zukako jokoetara. Onegaitik, oba izango gendukean jaio izan ez balitz" (Azkue, "Morfologia vasca", Bilbo, 1923, 573 orri) (neuk euskaraturik).

2.— "Triskantzarik aundienak egin be, ikako jokabidearen "i" orrek bizkaierazko euskalkian egin dauz" (Morfologia, 577 orri) (neuk euskeraturik).

3.— Bizkaiko leku batzuetan - Bakion, Lemoizen, Barrikan - oraindiño bizirik dirala diño Azkuek leenago-ko adizki zaarrak. Eta Nafarroako Etxarri-Aranaz-en, irribarreka eta pozez beterik, arpegikerea bera be aldatu jakola, Azkue ber-berak entzun ei ebazan urrengo dakazan adizkiok: "Etorri dakit, dakik, dakin, dakio, dakigu, dakizu, dakizue, dakioe. Au egia izan ezkeru, galdu ziran adizkera zaarrok ez bizkaieraz soillik, gipuzkoeraz eta nafarreraz be erabilten ziran, antza.

4.— Arturo Kanpion eta Seber Altube jaun jakintsuak ez dira Azkueren eretxi onen aldeko.

5.— Seber Altubek irakatsiaren arabera, "jat, jatzu, jako"... eta onango adizkiak bizkaierazko idazlerik onenak eta zaarrenak erabili ei ebezan: Kapanagak, Mogelek eta abarrek... Ondorenez, auxe esan bear: Kapanaga amazpigarren mendeko idazlea izan zanez, beronek adizki "barriak" badakarz, adizkiok errian guztiz zabaldua egozala, zalantzarik baga. Au dela eta, aldakuntza nabarmen au bizkaierazko aditzaren esparruan amaseigarren gizaldian zear-edo burutu zala uste izan daiteke, orrelango aldakuntza bat izkuntza baten ez da gertatzen gaueetik goizera edo urte gutxiren barruan, urteak eta urteak bear orretarako.

### AURRE APRAIZ'TAR BALDENDIN'EN LANEAN AGERTZEN DIRAN XVI GARREN GIZALDIKO ADITZ-JOKOAK

- "gura ez ebela eldu ekien (jaken) gudarako"...
- "edesten ekin ekionean (jakonean)"...
- "arpegikerea aldatu egin ekion (jakon)"...
- "amaitu ekiozan (jakoza)"
- "aldamenean jausten asi ekiozanean (jakoza-  
nean)" ...
- "gure aberriaren ganera jausi izan ekigun (jakun)  
zoritar" ...
- "etsaiaren egontzi bildurgarriak agertzen asi ekiguzanean (jakuzanean)"...
- "goaitari egoteko aldia amaitu ekionean (jakonean)"...

Orra, beraz, zortzi aditz-joko beintzat, Azkue jakintsuaren arabera, XVI garren mendean erabili oi ziranak eta idazkun orretan datozenak.

XVIII mendeko jokoak urrengoko lantxoan ikusiko eta aztertuko doguz.

Begoña, maiatzak 26, 1999.

PEDRO PUXANA, ARABARRAK.



## SANTA AGEDA BAKION

Ona emen Bakion batu doguzan Santa Ageda bertsoak:

### SANTA AGEDA

Santa Ageda, Ageda.  
Biar da Santa Ageda,  
biar da Santa Ageda eta  
gaur aren bezpera gaua (birritan)

Santa Ageda bezpera dogu  
Euskalerriko eguna,  
etxe guztiak kantuz pozteko  
aukeratua doguna. (birritan)

Aintza ta aintza  
Agate Deunari

EUP!!

### ACATE DEUNA

Aintzaldun daigun Agate Deuna  
biar da ba Deun Agate  
Etxe onetan zorion utsa  
betiko euk(ik)o al dabe.

Deun Agatena batzeko gatoz  
aurten be igazko berbera.  
Igaz lez artu gagizuz eta  
zabaldu zeuen sakelak.

Alkate jaunak agindu deusku:  
bakean ibil gaitazan.  
Bakean gabiltz, bakean eta  
ganean  
Jaungoikoaren legean.

Eskerrik asko jendea,  
bizi zaiteze bakean.  
Gero zeruan topa gaitazan  
Agedaregaz batera.

EUP!!

### SANTA AGEDA (I)

Santa Ageda, Ageda.  
gure martiri maitea  
Etxe oneri emon eiozuz  
zoriona ta bakea

Mutil gazteak gara gu.  
bakiotarrak ganera  
Txiro-gaixoak poztuteko da  
gaurko gure eskaria

Mendi tontorr(e)an edurra,  
errekaldean leizarra.  
Etxe onetako nagusi jaunak  
urregorritz dau bizarra.

Eskerrik asko jendea.  
bizi zaiteze bakean.  
Gero zeruan topa gaitazan  
Agedaregaz batera.

EUP!!

### SANTA AGEDA (II)

Santa Ageda, Ageda  
gure martiri maitea.  
Etxe oneri emon eiozuz  
zoriona ta bakea.

Santa Ageda, Ageda.  
eskaten deutsut grazia.  
Zeure bizitza abestuteko  
erruki dadin jendea.

Zenbat sufritu zenduan  
eriotz itzalgarrian,  
zeure gorputza kristal  
narrastatu ebenean.

Eriotz eder-ederra  
euki zenduan Ageda.  
Zeruko atea zabaldurikan  
artuko zendu(a)n bakea.

Eskerrik asko jendea,  
bizi zaiteze bakean.  
Gero zeruan topa gaitazan  
Agedaregaz batera.

Beste bertso batzuk:

Bedeinkatua izan dadila  
etxe onetako jendea.  
Pobre ta umilde dabilan(ar)entzat  
badozu borondatea.

Oles. oles ateetan.  
Nor dabil ordu onetan?  
Bakioko jende gaztea  
bazterrak inkomodetan.

Ortxe goien otea,  
auntzak jan dau botea.  
Urregorrik plagaurik dago  
Maritxu zure dotea.

Emongo ba(do)zu, emoizu.  
Bestela, ezetz esaizu.  
Atean otzak ilten egoteko  
amak ez gaitu bialdu.

Atso mondrongo-mondrongo.  
Ik ez dona asko emongo.  
Ik emoten donan limosneagaz  
ez jonagu asko edango.

INIAKI MARTIARTU

### "OTTO PETTE" ANJEL, LERTXUNDI ALBERDANIA EDITORIALA 458 ORRIALDE

### ERITXIA

Liburu onetan Erdi Aroko zaldun baten istorioa, Otto Pe-  
tterenena, kontatzen da. Zelan erregearen alboan matxinoen  
kontra borrokatu eban, eta zelan matxinoen buruz zan Erro-  
dalen atzetik ibili zan. Jazokera guztiak izurrite baltzaren  
sasoian kokatzen dira.

Nire ustez, liburu au oso aspergarria da, batez be leenengo  
kapituluetan. Istorioan bein sartu ezkerro (benetan, gauza  
gatxa!), gustorago irakurri neban. Euskera aldetik, naiko astu-  
na iruditu jat.

Geien gustatu jatazanak izurriteari buruzko azalpenak izan  
dira, eta gitxien amaicra, oso aspergarria dalako.

ZIORTZA GARAI

# ALBISTEAK

## NIRE BURUARI LABUR

Egun euritsu ta ilunetan pozik,  
baserri zein urian bizi izanik,  
bedartza, larra eta basoa gurago,  
ke, zarata eta jende samaldea baino.

Izkuntza ta erriaz arduraturik,  
ekonomia eta lana aaztu barik,  
etxean zein lagunartean egonda,  
aurrerantza joateko asmoak artuta.

INIAKI MARTIARTU

## ALAITASUNA PTaren BARRIAK

URKINTZA ikastetxeko 3-4 urteko ikasleak eskolatik kanpoko zereginetan ibili dabiltz Alaitasuna Pelota Taldeak lagunduta.

Psikomotrizitate arloko gai batzuk lantzen diardue.

Adinean urrengoei, umetxuak (benjaminak) eta ume gazteak (alebin-infantilak), aurrerakuntza nabariak igarten jakez.

Beste alde batetik, Alaitasunako arduradunak euren burua errezikletako asmotan dabiltz, FORMAKUNTZA ZABALEKO PROGRAMA ikastaroaren bidez, ain zuzen be.

INIAKI MARTIARTU

## ESKOLAKO GURASOEN ALKARTEA

Informatika ikastaroa abian da daborduko eskolan, gurasoen alkarteak eratuta, atan be. Jo ta ke pozarren ei dabilz gurasoak informatika arloari ekiten.

Beste alde batetik, umeen arteko pelota txapelketea aurrea doa. Onezkerok, bigarren txandan dagoz eta ederto baten konpontzen ei dira. Amabosterik bein, zapatuetan, arratsaldeko 4.30etan izaten dira pelota partiduak.

INIAKI MARTIARTU

## ITXAS-ALDE ARGENTINAN

Gure aurtengo abentura zezeilaren 20an asi zan, Argentina-rako egazkina artu genduan. Naiz eta bidaiia luzea izan, ilusioz beteta egin genduan eta olantxe eldu ginan Rojas errira, bertan Maikan Sumaj-eko lagunak gure begira egozala, eta baita beste lagun barri batzuk be: Mexikoko dantza talde bateko kideak.

Baina ez dogu aaztu bear gure bidaiaren elburua euskal folklorea zabaltzea zana, eta orrelan egin genduan leenengo egunetik. Rojasen ibilteaz gain, inguruko errietako jaialdietan be dantzatu genduan: Colon, San Isidro, Arrecifes,...

Aitatutako azken errian, bertako Euskal Etxean egon ginan berbetan, eta ainbat kontu alkar trukatu genduzan. Arrecifesen be, San Pelaio aldeko Erkorekatar andra bat ezagutzeko aukera izan genduan.

Dantza egiteaz gain, bertako kultura eta oiturak ezagutu genduzan, adibidez, an baztertuta dagoan Mapuche indiarrena.

Bueltarako egazkina artu aurretik, Buenos Airesen igaro genduan azkenengo eguna.

Gixajoak gu, amar bat egun berrogei gradutan bertan egon eta berton curia eta otza aurkitu bear!

IDOIA MARKAIDA

## GURE ARETZAKO AREA

Bakioko altxorrik maiteenetariko bat, geure aretzea, arez ustuten jabilkuz. Arrigunagako artezea barrizatuteko daroaskue emendik area, aurki. Ekintza jatorra, zintzoa besteko aalegin andiz betea.

Baina ez dogu uste ori egiteko aukeratu dabezan bideak eta erea egokienak eta garbienenak izan diranik.

Asteko, orren guztiorren ganean Bakiotarrok izan dogun informazinorik ezea, bai leenengo are-atarate egunetan, bai gero koetan be.

Geroago baten, baina, gure artean alarma gorria biztu zanean, batzar batera deitu euskuen.

Beluago baten, bigarren batzar batera be.

Batzar orreetan are-atarate orreri oneritxia emon eutsoen txostenen egile teknikariak alkarregaz izan gintzazan.

Eurok azaldu euskuezan arrazoi eta zergaitiek ez eben, baina, guretariko inor pozik itzi. Bertara agertu gintzazan erritarrokaz egindako berbaldian argi lotu ziran, alde batetik, bearren arduradunek egindako jardunbide akatsak, ingurugiro ganeko eraginari buruzko txostenik eza —Eusko Jaurlaritzak onartutako legeak olangorik eskatuten badau be—, edota bagila ta garagarrilan aretzea ikertu aal izateko zeaztasunik eza (zeaztasunok ez dauke ezelango zerikusirik neguan aretzean batuten diranakaz-eta).

Beste alde batetik, Aldundiak berak aurkeztu dauazan zeaztasunen arabera, au da, eguneroko are-atarateen ganeko txostenek erakusten dabenez, leenengo egunetan area atarateko baimenduta egoan tokitik kanpo ataraten ibilli ei ziran. Eta ori ez eze, legeak baimenduten dauan 25m-ko gitxieneko sakonerarik gora be area ataraten ibili ei dira, ganera.

Legez kanpoko are-atarate orretan ia 25.000 m.3-ko are kopurua atara ei eben itsas ondolik.



Are kopuru ori beraren lekura arin be arin atzera ekarteko eskatuten dogu, udaletxean egindako bigarren batzarrean teknikariek ebatzi eben lez. Baina, orrez gan, gure ardurarik nagusiena, baita Bakiotar askorena be, itsas ondolik atara gura daben 210.000 m.3-ko are kopuru ori atarateagaitik, emendik eta gitxira, sortu leitekezan ondorio txarrak eta kalteak dira.

Esan barik doa, aretzea erriko iturri turistikorik garrantzitsuena da, baita oidalango iturri ekonomikoa be. Aretzea ondatu ezkerroan, erriko ostalaritza arloko establezimenduei zein Bakiori ondorio txarrak ekarriko leuskiez orrek.


Ea arazo oneri danon oneritxiz amaiera pozgarria emoten jakon. Gure Erriaren onerako: erria jagon daigun, datozan urteetan be Bakio euskal itsasaldeko toki zorigarria izan daiten.

BAKIO SURF TALDEA

# EUSKALDUN BARRIENTZAT




Marrazki onetan 7 erru dagoz.



Zati oneen artean, batek, bere lekua dauka laukitxuan. Zein?

Azalpena: 3



Gizona errira joango da, baña puntu baltzetatik ezin da sartu. Nundik joan bear dau?

5 0 0 B

5 0 0 A  
B



Ez da zilegi

Azalpena: Debekatuta dabe


KARMELE



**EUSMIITZKLEZK**

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.  
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea



## BAT GATUZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konpromezutzat  
artuten dogu, geure erri onen  
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik  
lagunduten deutsegu gogo osoz,  
geure nortasun berezia indartuten  
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten  
deutsagu, kultur adierazpenen  
artean, gure ezaugarririk gorena  
dan euskerearen garapenari.

---

**EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK**

---

**BBK**

Bilbao Bizkaia Kutxa

200 pezeta

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO